



FRAISORO, SORRERATIK GERRA ZIBILA BITARTE (1895-1936)

Nork ez daki non dagoen Fraisoro? Nork ez daki Fraisoron baserri-eskola bat dagoela eta garai batean umezurztegia, casa-cuna edo horrelako zerbait izan zela? Baina, egia esateko, ezer gutxi da Fraisorori buruz dakiguna, Zizurkilek bere historia guztian izan duen gunerik garrantzitsuenetakoa izanda ere. Axalekoa kenduta, ezer ez dakigula konturatzen gara. Umezurztegiagatik akaso, Fraisoro gure bizitzatik zokoratu dugu urte askotan zehar, oroimen kolektiboa lausotu arteraino. Fraisoro ezezagun bihurtu zaigu.

NEKAZARITZAKO ESKOLA

XIX. mendearen amaieran ekonomiaren suspertze orokor bat hasi zen Euskal Herrian, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 1895ean nekazaritzaren irakaskuntza eta esperimentazioarako Fraisoro baserria alokatu zuen lehenik, urteko 2.000 pezeta ordainuz, eta erosi laster, 50.000 pezetaren truke. Hiru urte eta gero, 1898ko irailan egin zen Etxe-Ereduaren eta eskolaren inaugurazio ofiziala.



Fraisoroko Etxe-Ereduaren proiektua (1898)

Hurrengo urteetan jarduerak sendotzen joan ziren eta laster iritsi ziren arrazako lehen haziendak. Hazitarako Zezenen Ernalketarako zerbitzua eta esnetegia eta kimika laborategi txiki bat abian jarri ziren, helburu nagusizat osasun kontrol higienikoa eta eskuraturiko gaien kalitate kontrola zutena.

Azkar konturatu ziren arduradun nagusiak motz geratzen zela Gipuzkoako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren garapena baldin ez bazioten baserriarren Heziketa eta Trebakuntzari heltzen. Horrela, Nekazaritzako Eskola Praktiko bat sortzeko erabakia hartu zen, nekazaritza lanen arduradunak prestatzea eta baserriarren semei lanbide heziketa ematea xede zuena. Sarbiderako 16 urte baino gehiago izatea eskatzen zen, idazten eta irakurtzen jakitea eta osasun ona izatea. Ikasketak doakoak ziren eta bi urteko iraupena zuten.

1912an jarduera berriak egiten hasi ziren eskolan eta hiru ikastaro mota ipini ziren Fraisoron: Laborantzakoa, Esnetegikoa eta Sagardotegikoa. Horrekin, irakaskuntza espezializatuagoa eskaintzen zitzaion ikasleei eta prestakuntza profesional hobea lor zezaketen. Gero eta garrantzitsuagoa izan zen Fraisorok egindako lana nekazaritza eta abeltzaintzako teknika berriak ekartzekoan, baserriar gazteen prestakuntzan, eta, azken finean, Gipuzkoako nekazaritzaren garapenean.

Emakumeak gizartean izan zezakeen zeregin garrantzikoaz jabetuta, baserriarren alabentzako ere nekazaritza eskola sortzeko egitasmoa onartu zen Fraisoron 1921ean. Ekimenak arrakasta handia izan zuen eta horrek eskolak eskaera egiten zuten herrietan bertan ematea ekarri zuen. Horrela, ikasle emakumeek ez zuten Fraisororaino etorri behar.

Txerritegia

Hasiera-hasieratik hazi ziren txerriak Fraisoron, atzerriko arrazetakoak eta baita bertakoak ere. Txerritegia irabazpide bikaina izan zen, etekin handiak ateratzen baitziren txerrikume esnetatik kendu berriak saltzetik eta apoak hazitarako erabiltzetik. Txerritegiak oso lotura estua izan zuen guringintzarekin, txerrien elikagai gehiena guringintzak uzten zuen esne guringabetuaz eta gazuraz osatzen baizen. Atal honetan ere 36ko gerrak atzerakada handia ekarri zuen eta txerritegiaren garrantzia gutxituz joan zen poliki-poliki, harik eta 1960 ingurutsuan txerriak erabat desagertu ziren arte.



*Jatorrizko Fraisoroko Etxe-Eredua eta, aurrean, Fraisoro baserria zena
(Serapio Mugica: Geografia de Guipúzcoa -1918)*

Esnetegia

Ziur asko, Fraisoroko etxaldean egin den gairik aipagarriena gurina izan da; gurinaren salmenta eta ekoizpena izan dira etxaldearen ekonomian eta ospe onean eragin gehien izan duten jarduerak. 1903an inauguratu zen Fraisoroko esne lantegia, punta-puntakoa izan zena bere garaian, ez eskualdean soilik, estatu guztian baizik; izan ere, garai hartan erabili ohi zenaren aldean tresneria aski aurreratua zuen Fraisoroko esnetegiak: hozkailuak, gaina kentzeko zentrifugatzaileak, pasteurizagailuak, gurin ontziak, orea egiteko makinak, prentsak eta tresneria osagarriak.

Hasieran etxaldean bertan biltzen zen esnea soilik lantzen zuen Fraisoroko lantegiak, hau da 400 bat litro egunean; baina esnetegia zabaldu eta handik urtebetera 1.500 litro lantzen ziren eta 1913rako, 3.000 litrotik gora. Esne gehiena inguruko herrietako baserrietan biltzen zen: Zizurkilen bertan, Asteasun, Alkizan, Aian... Gaina kentzeko tresnak jarri ziren baserrietan, baserriak Fraisorotik nahiko urrun baitzeuden eta garraiorako eta kontserbaziorako arazoak sortzen baitziren bestela. Esne jetzi berriari baserrian bertan kentzen zitzaion gaina, eta gain hura bi egunez behin biltzen zuen Fraisoroko arduradunak, mikelleteak.



Hurbileko baserrietako esnea goizean biltzen zen, eta bildu eta berehala kentzen zitzaion gaina, zentrifugatzaile batekin. Ondoren, gain hura urrutiko baserrietan bildutakoarekin nahasten zen, pasteurizatu egiten zen, hoztu eta azkenik esne hartzigai bikainekin ontzen zen. Gurina hurrengo egunean egiten zen. Gainera, 1925ean ahalmen handiko hozkailu bat erosi zen, gurina egin eta berehala kontsumo guneetara banatu beharrik ez izateko.

Fraisoroko guringintza oso ospetsua eta kalitatez bikaina izan zen eta diru sarrera bikaina etxearen ekonomiarako, baina guringintza 1965 inguruan utzi zen alde batera, Gurelesa sortu zen garaitsuan hain zuzen ere. Izan ere, esne industria guztia Gurelesan zentralizatu zen, esne bilketarako azpiegitura bikainak baitzituen enpresa berriak eta zerbitzu eta prezio hobekak eskaintzen baitzituen; dena dela ezkutuko interes eta estrategiak ere izan ziren. Horiek izan ziren Fraisoron hain erro sakonak egin zituen jarduera hura desagertzeko azken arazoak.

Laborategia

Fraisoro sortu bezain laster hasi ziren laboratorion analisiak egiten. Lehenengo analisiak, lurren analisiak hain zuzen ere, 1898an egin ziren. Ongarriak eta etxaldean ekoizten ziren nekazaritzako gaiak aztertzen ziren. 1902an, berriz, esnari eta esnekiei buruzko lehenengo ikerketak egin ziren, etxaldeko esnetegia eraberritzearekin batera.

1913an laboratorior berria prestatu zen, lokala eta materialak eraberritu eta egokituta. Nekazaritza, Esnegintza eta Sagardogintzako Eskola Probintziala sendotu nahi zen, batetik, eta etxaldean egiten ziren ikerketa esperimentaletan parte hartu nahi zen, bestetik. Gero, 1931n, fitopatologiaren alorra sortu zen, Fraisorok baitzuen lurraren izurriei buruzko ikerketak egiteko ardura.

Esan bezala, laboratorior hark kanpoko kontsultei erantzuten zien, eta ikasleei nekazaritzan eta abere zaintzan sortu ohi diren arazoei buruzko argibideak ematen zizkien halaber. Zeregin horietan jarraitu zuen 1943 arte, baina Gerra Zibila hasi zenez gero gainbehera etorri zen laboratoriora, etxaldeko gainerako zerbitzuak eta jarduerak bezalaxe, langile aski ez zegoelako eta tresneria zaharkituta gelditu zelako batez ere.

Sagardogintza

1911n inauguratu ziren Sagardotegi Experimentalak eta Sagasti Gunea, makineriarik modernoenez hornituta eta hurrengo urtean hasi ziren Sagardogintzako Arduradun Titulua ateratzeko ikasketak, bi urtekoak, teorikoak eta praktikoak txandaturik. Sagardogintzari buruzko jarduerak eta esperimentuak Gerra Zibila arte iraun zuten. Gerrarekin batera, Fraisoroko gainontzeko ekimen guztietan gertatu bezala, geldialdia izan zen.



UMEZURZTEGIA

Aurrezki Kutxa Probintziala 1896an sortu zen eta lau urte geroago, 1900ean, Gipuzkoako Seaska-etxe berri bat eraikitzea erabaki zuen, Fraisoron zehazki. Bazituen horretarako arrazoiak: etxea eraikitzeke bazen nahiko lurra, inguru naturala eta osasuntsua zen haurrentzat eta, gainera, bertan ekoizten zen beharko zuten esnea, inudeen eskasi garai hartan. Obren kostua 73.905 pezetetakoak izan zen eta etxea 1903an inauguratu zen, Donostiako tornuan jasotako 40 hurrekin. Baina Tolosako amatasun-gela itxi zenez eta beste herrietako tornuetan utzitako haurrak ekartzen hasi zirenez, berehala handitzeko obrak hasi ziren. Gainera, tornua zen familia legitimoentzat haurra "ilegitimo" bihurtzeko aukera eta, horrela, haurra Administrazioaren kargu uzteko bidea. Familien miseria eta pobrezia, amaren esne falta edo eta gurasoen heriotza goiztiarrak tornuan utzitako haurren kopurua asko igo zuen. Horrek alarma piztu zuen eta tornuak kendu zituzten 1913an. Handik aurrera, haurrak sehaska-etxeke atarian entregatzeko behartuta, amei eta haur gehienei buruzko filiazioa ezagutzeko aukera izan zen.



Aipatutako azken obrak Ramon Cortazar arkitekto ezagunak zuzendu zituen eta 1913rako prest zeuden. Etxe berriak bisitarien miresmena ekarri zuen, eta gero eta gehiago izan ziren etxea eta hango funtzionamendua ezagutzeko asmotan hurbildu zirenak. Espainiako beste probintzietako agintariak nahiz inklusetan lan egiten zuten medikuek, hemengo dotorezia eta emaitza onak erakarrita, inbidiaz ikusten zuten Fraisoroko eraikina eta erakundea. Esan behar da, ama ezkongabeak jendearengandik ezkutatzeke, lur sail hura zeharkatzen zuen auzo-errepidea desbideratu egin zutela.

1921ean erakinean bi alde prestatu ziren: ezkerrekoa ama ezkongabe "arruntentzat" pentsatua zegoen. Bertan logela komunitarioak zeuden, bai beheko bai lehen solairuan. Gela bakoitzean hogeit hamar emakumerentzako lekua zegoen. Eskuin aldean berriz, pagatzaile edo ohorezko amentzat 10 banakako logela

zeuden. Gela haietako bakoitzak terraza zuen, ondokotik eta kanpoaldetik erabat isolatua, inork ikusten ez zuela... Emakume "pagatzaileak" gehienetan familia onekoak ziren eta hori dena beren anonimotua modu zorrotzean gordetzeko egin zen. Haurdunaldia erabateko anonimotasunean eraman nahi zuten kasuetan, pagatzaileen gela haietan, ohea, konketa eta errezoetarako aldaretxoaz gain, korridorera eramaten zuen zuloa zegoen. Klausura moduan, zulo horretatik janaria eta pixontzia jasotzeko aukera zuen. Esan beharra dago, gutxi izan zirela erabateko klausura horretan bizi izan ziren emakumeak. Haietako gehienak, gainera, ez borondatez, baizik eta familiak hala aginduta.

Seaska-etxean biltzen ziren emakumeek ez zuten profil bakarra eta berdina. Haurraren aitak eta emakumearen familiak ematen zion babesak markatzen zuen emakumearen egoera. Baziren prostituzioan aritzearen ondorioz haurdun gelditutakoak, baina ez ziren gehienak. Bortxaketa gogorrek jasandako emakumeak ere baziren, hauetako asko adinez nagusi ez zirenak... baina baziren maitasunak ekarritako haurdunaldiak. Batzuetan, bikotekidearen familien maila ekonomiko ezberdinak zapuztutakoak; besteetan, 21 urteko adin nagusitasuna ez izateagatik, gurasoen nahia bete beharra; baita maitasun harremana ezkondu batekin izan zelako. Gehienak ezkondu aurretik bikoterekin izandako harremanen haurdunaldiagatik zeuden.

Bertan erditzen zuten ama ezkongabeak beste haurren inude-lanak egin behar izaten zituzten, derrigorrez, bi hilabetez behintzat. Trukean, administrazioak debaldeko erditze ospitalarioa, haurraren geroko gastu medikuen ardurua eta diru-laguntza eskaintzen zien. Epea pasatuta, gehienak atera egiten ziren handik; baina baziren, etxeke bazterketa edo bestelako arazoengatik, etxera bueltatu nahi ez zutenak, edo ezin zutenak, eta horiek instituzioan gelditzen ziren luzaro inude moduan. Haietako batzuek urtean eman zituzten instituzioan, hasieran inude, esnea izan zuten bitartean eta, ondoren, bertako langile moduan, *ama seca* zeritzona. 1960ko hamarkadatik aurrera, esne artifizialaren erabilera hedatu zen eta inude izaera pixkanaka galdu egin zen.

Larramendi Bazkunaren eskutik argitaratu zuen Eva Garciak "*Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak*" izeneko lan bikaina. Bertan jasotzen denez, 12.000 inguru dira Fraisoron jaio ziren haurrak. Txukun, ondo zainduak eta elikatuak baina familiarik gabe, haurren bizimodua itxoitea zen, bila azalduko zitzaizen ama biologikoaren edota seme-alabatzen hartuko zuen familiaren zain.

Gehiago jakiteko:

- *Fraisoro Ehun urte – Fraisoro*, 1998
- *Euskomedia* - <http://www.euskomedia.org/aunamendi/52156>
- *Geografía de Guipúzcoa - Serapio Mugica* – 1918
- *Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak* – Eva García Magriñá – Manuel Larramendi Kultur Bazkuna - 2011

FRAISORO, DESDE SU NACIMIENTO HASTA LA GUERRA CIVIL (1895-1936)

¿Quién no ha oído hablar de Fraisoro? Sabemos, sí, que hay una escuela agraria, que hubo una casa-cuna... pero poco más. Siendo uno de los lugares de mayor importancia del pueblo, se nos ha ido difuminando en nuestra memoria colectiva. Fraisoro, esa desconocida.

LA ESCUELA AGRARIA

Con la bonanza económica de finales del XIX, la Diputación Foral de Gipuzkoa decidió crear un centro agrario, para lo que alquiló primero la finca Fraisoro (2.000 pesetas anuales) para finalmente adquirirla en propiedad (50.000 pesetas). La Escuela-Modelo fue inaugurada en 1898. Enseguida llegarían los primeros ganados de raza y, con ellos, servicios como la inseminación artificial y un laboratorio.

Pronto se vio la necesidad de crear un centro de enseñanza agraria para los hijos de los baserritarras. Se trataba de un ciclo gratuito común de dos años de duración, que enseguida se reforzó con tres especialidades: Agricultura, Lechería y Sidrería. La Escuela de Fraisoro fue adquiriendo una gran importancia en la experimentación de nuevas técnicas y en la preparación de jóvenes baserritarras. Incluso en 1921 hubo un intento de creación de un centro de enseñanza exclusivo para las hijas de baserritarras, iniciativa que tuvo gran éxito, por lo que los cursos se trasladaron a las poblaciones que lo solicitaban, terminando los impartidos en Fraisoro.

La pocilga – Funcionó desde los comienzos de Fraisoro. La venta de cochinitos y el servicio de inseminación de los machos fueron una buena fuente de ingresos. Además la pocilga estuvo muy unida a la lechería, pues los cerdos se alimentaban con el suero sobrante de las mantequillas.

La lechería – La mantequilla de Fraisoro fue un producto de calidad que obtuvo un gran prestigio en los mercados de todo el estado. Su centro de producción dispuso de la tecnología más adelantada en su tiempo y elaboraba la mantequilla con su propia leche y con la producción de los caseríos de la zona, que era recogida por los miqueletes. Pero la lechería languideció hacia 1965 por una mala gestión, por intereses ocultos y por no poder competir en el mercado con los servicios y precios que ofrecía a los baserritarras la recién constituida Gurelesa.

El laboratorio – Comenzó sus trabajos de análisis de terrenos y abonos en 1898, para expandirse rápidamente al sector lácteo y en 1913, renovado y reforzado, participar en los proyectos experimentales de la propia escuela. También atendía consultas externas y participaba en los cursos de formación del alumnado. Como el resto de Fraisoro, languideció en la Guerra Civil para finalizar su trayectoria en 1943.

La sidrería – Fue inaugurada en 1911, con unas modernas instalaciones que posibilitaron la creación de la especialidad de Responsable de Sidrería, con unos estudios de dos años de duración. También la sidrería se vino abajo con la Guerra Civil.

LA CASA-CUNA

Cuatro años después de su nacimiento, la Caja de Ahorros de Provincial de Gipuzkoa decidió en 1900 la creación de una casa-cuna en Fraisoro. Aquí se disponía de terrenos propios, era un entorno natural y saludable para los niños y niñas y, además, con la escasez de nodrizas, se disponía de abundante leche de la propia lechería. El centro fue inaugurado en 1903, con un costo estimado en 73.905 pesetas y 40 niños y niñas. En una situación de abundante pobreza familiar y en no pocos casos por el fallecimiento prematuro de los progenitores, pronto la casa se vio desbordada con demandas de acogida y por la cantidad de niños que se abandonaban en su torno, por lo que este tuvo que ser anulado y en 1913 se procedió a preparar la ampliación del centro según proyecto del conocido arquitecto Ramon Cortazar.

La nueva casa levantó la admiración de propios y extraños por su hermosura y ejemplar equipamiento, recibiendo abundantes visitas de médicos y políticos de otras comunidades. Cabe indicar que, para ocultar a las madres solteras de miradas indiscretas, incluso se cambió el trazado de la carretera de acceso a los caseríos que atravesaba la zona.

En 1921 se diferenciaron dos entornos en la Casa-Cuna, una en cada ala del edificio: la parte "normal", a la izquierda, con dormitorios comunitarios para unas veinte mujeres, y la de pago, a la derecha, con diez habitaciones individuales, cada una de las cuales disponía de su terraza, siempre aislada de la vista ajena y discreta. En esta ala se alojaba a hijas de buena casa que querían mantener su anonimato.

No puede hablarse de un perfil uniforme en las mujeres que acudían a la Casa-Cuna y su situación dependía del apoyo que recibía del padre biológico y de su propia familia. Algunas provenían de la prostitución, pero eran las menos. Se dieron abundantes casos de violaciones, muchas veces a menores de edad... pero la mayoría de los casos se trataba de embarazarse de mujeres solteras y *por amor*. A veces era la familia del hombre, otras la propia familia de la mujer la que obligaba a esas mujeres a acogerse a la Casa-Cuna.

Las mujeres que daban a luz en Fraisoro estaban obligadas a trabajar dos meses como nodrizas de otros niños. Como contrapartida, el centro les garantizaba la gratuidad de su parto, de su manutención y de los gastos médicos generados. Transcurrido ese plazo de dos meses, la mayoría de las mujeres abandonaban el centro, aunque algunas permanecieron en el mismo durante muchos años. La generalización de la leche artificial a partir de la década de 1960 hizo desaparecer la figura de la nodriza.

Según se recoge en el gran trabajo *Madres de Fraisoro, hijos de Fraisoro* de Eva Garcia, auspiciado por Larramendi Bazkuna, fueron unos 12.000 los niños y niñas que nacieron en la Casa-Cuna. Se trataba de niños o niñas limpios, bien alimentados pero sin familia, siempre esperando a que su madre biológica volviera a recogerlos o a una familia que los acogiera.

